



ATAUNGO UDALA

# Bandoa ATAUN

## DENON ARDURA DA ZABORRA BEREIZTEA ETA ONDO ATERATZEA

Ataungo Udala, Goierriko gainerako beste udal guztiak bezala, Sasieta Mankomunitatean sartuta dago, eta mankomunitate honek biltzen du guk edukiontzietara botatako zaborra. Ez dauka edukiontzietatik kanpo utzitakoa edo gaizki ateratakoa jasotzeko erantzukizunik. Esate baterako, errefusaren ontziak uzteko posteetan zintzilikatzen diren zabor-poltsak ez lituzke jaso beharko. Gogoratu **errefusa astelehen iluntzean edo gauean** atera behar dela. Ontzirik behar baduzue, deitu (943180011) edo idatzi (udala@ataun.eus) udaletxera, eta emango dizuegu.

Sasieta Mankomunitateak, ohiko zabor-bilketaz gain, bestelako zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, honako hauek, besteak beste:

- **Traste zaharren bilketa, hilaren lehen eta hirugarren astearte gauean (uztailak 7-21, abuztuak 4-18); aurrez deitu egin behar da, eta astearte gau horretan atera behar dira trasteak.**
- **Garbigune zerbitzua, Beasainen, Ordizian eta Urretxun.**

Honezkero ikusiko zenituzten kameraz zaindutako gunek iragartzeko kartelak. Hainbeste mezu, ohar eta bandoren ondoren, arazoak bere horretan segitzen duela

## LANGILE BAT KONTRATATZEKO DEIALDIA

Lan-pilaketa dela eta, Ataungo Udalak langile bat kontratatuko **du lanaldi osoan aritzeko hiru hilabetez**. Eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

- Lorategi, herri-bide, parke eta abarretako mantentze- eta garbiketa-lanak.
- Egokitzen diren bestelako lanak.

Lanpostu honetan aritzeko asmoa duzuenok, Lanbide Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan eman beharko duzue izena, **uztailaren 2tik uztailaren 8ra** (biak barne). Han emango dizkizuite gainerako xehetasunak.

## LOREZAINZTA-TALDEA

Herriko jardinerak txukundu ditugu, eta haiek zaintzeko eta ureztatzeko sarea osatu nahi dugu. Aian, Ergonen, San Gregorion eta San Martinen dauden jardinerak zaintzeko borondatea duenak Ataungo Udaleko Whatsapp zenbakira (616758758) idatzi behar du, izen-abizenak zehaztuta. Izena ematen dutenen artean **lorezaintza-taldea sortuko dugu eta ardurak banatuko ditugu**.

Ea denon artean herria koloretsu mantentzen dugun!

Ataunen, 2020ko uztailaren 1ean.



## Hondakinen batzordeak herrian ikusi dituen arazo nagusiak



Poltsak lurrean uzten dira (animaliek dena sakabanatzen dute).  
Edukiontzia horian eta organikoarenean ez dugu ongi birzikilatzen. Ongi aztertu Sasietairen eskuorriak.



Zaborra lurrera ez botatzea, gure betebeharra izateaz gain, GURE ARDURA da.

Kalean zaborra ikustea ohiko bihurtu da.



Txakuren gorotz asko ikusten da.

Jabe bakoitzak bere txakurraren gorotzak jasotzea behar den lekuan botatzeko BETEBEHARRA da.



Gaur egun jendeak hondakinen poltsak mendian botatzen jarraitzen du. Mendiak garbi mantentzea GURE ARDURA da.